



Euskal dantza tradizionala, magia eta diziplina

Idoia Besada, ULMA Medical Imaging



ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK

Taldeko langile eta bazkideek bateratu egiten dituzte beren ibilbide profesionala eta zaletasun zorrotzak, talentuarekin eta ahaleginarekin horma guztiak botatzen direla erakutsiz.

Idoia Besadak, ULMA Medical Imagingeko langileak, euskal dantza tradizionala praktikatzen du 6 urte zituenetik.

Idoia Besada, duela 25 urte Pasaian jaioa, gurekin ari da 2018ko udaz geroztik, eta beti sentitu du pasioa euskal dantza tradizionalengatik. Gogoan du 4 urte zituela bere ahizpak Villabonan hartzen zituen solteko dantza klase guztiak jarraitzen zituela txoko batean eserita. Egun batez irakasleak altxatzeko esan zion, eta gaur arte ez da berriz ere eseri. Gaur egun soilik dantza tradizionala egiten badu ere, bere burua dantza ororen zaletzat dauka, eta urte hauetan zehar baleta, dantza garaikidea eta baita klakea ere ikasi du.

Idoiaren ibilbidea oso bizia izan da, 6 urte zituenean Erreterriako Dantza eta Musika Eskolan euskal dantza tradizionalako eskolak hartzen hasi zenetik 18 urte bete arte. Aldi berean, eta bere lagunekin dantzatzeko asmoz, Pasaiaiko Alkartasuna Dantza Taldeko kide izan zen. 14 urte zituela Jesus Mari Garatek gonbita egin zion Beasaingo Nahia Dantza konpainian parte hartzeko, eta 18 urte bete zituenean Erreterriako Ereintza Dantza Taldera egin zuen salto. 22 urterekin, Xabier Artolarekin hasi

zen dantzan, gaur egun ere bere dantza bikotea den horrekin, eta entseguetako baten ondoren proposatu zioten Tolosako Udaberri Dantza Taldean geratzea, "eta oharkabea, udaberriar bilakatu naiz", kontatu digu.

Artolarekin batera, dantza solteko txapelketetan parte hartu izan du Euskal Herri guztian barrena. Dantzari honek hainbat lorpen erdietsi ditu; besteak beste, 3 aldiz izan da "Euskal Herriko Dantza Txapelketako" txapelduna Xabierrekin batera, eta bitan bere lehengo bikotearekin, Jon Ibargurenekin. Gazteagoa zenean ere lehen postua lortu zuen "Euskal Herriko Soinu Zahar Txapelketan".

Udaberri Dantza Taldeko kide gisa, Idoiak ikuskizun askotan parte hartzen du urte osoan zehar, nahiz eta uda den denboraldirik aktiboena, herrietako jaiak tarteko. "Dantza taldeetan urte osoan zehar entseatzeko dugu, eta taldera iristen diren ia ikuskizun eskaera guztiak onartzen ditugu", adierazi du Besadak. Dantzaren eskutik hainbat herrialdetara bidaiatzeko aukera izan du; hala nola Italiara, Suitzara, Txekia, eta baita Japoniara ere; azken bidai horretaz oso oroitzapen onak ditu.

Idoiarentzat dantza da "egunerokoa ahaztu eta mundu ezberdin batean murgiltzea. Dantzaren bidez nire sentimenduak adierazteko aukera daukat,

eta izan ditzakedan arazoak alde batera uzteko momentu bat da. Txapelketetan gozatzeak aukera nerbioak direla eta pixka bat murrizten bada ere, agertoki gainean dena ahazten duzu".

Pasaitarrak astean hiru entsegu orokorrekin ekiten dio urteari, eta horiei bat gehiago gehitzen die apirilean, Tolosako San Juan egunerako Bordon Dantza entseatzeari ekiten baitiote. Otsailean, txapelketak prestatzeari ekiten diote, eta dinamika guztiz aldatzen da. Bere dantza bikotearekin astean bitan entseatzeko du; horretaz gain, taldeko entseguak ditu, eta maiatzean, txapelketak martxan jartzearekin batera, astean hirutan ere ikusten dute elkar, baita lautan ere, abuztutik aurrera, alegia, hitzordurik garrantzitsuena hurbildu ahala: "Euskal Herriko Dantza Solte Txapelketa".

Horrek eskatzen duen dedikazioa handia izan arren, "dantza maite dugu, eta horregatik ateratzen dugu denbora ez dagoen lekutik ere". Bere dantza taldea eta bere lantokia Pasaiaiko etxetik urrun daude, eta hori dela-eta denboraldian zehar entseguak laburragoak izan dira, baina ostiraleko entseguak ahal bezain beste aprobetxatzen saiatzen da. Onartzen du: "Ez da erraza. Baina zaila ere ez. Esaera zaharrak dioten bezala; gustuko tokian, aldaparik ez".